

## **PAZKO ALDIKO 2. DOMEKEA – A** **Pazko zortziurrena. Jainko Errukiaren Domekea**

### **SARRERAKO OHARRA**

Anai-arrebok:

Pazko zortziurrenean gagoz. Zortzi egunez luzatu da Pazko eguneko poztasuna. San Joan Paulo II.a Aita Santuak nahi izan eban domeka honi “Jainkozko Errukiaren Domeka” deitzea. Ez dago ezer handiagorik Aitak deuskun maitasuna baino.

Egia hau pozgarria da, dana hartzen dauana. Hori dala-eta, ilusinoz, gorputz eta arima ibiltera garoaz, alkarte alaian bihotz eta sentiera bat bizitzera, Kristoren Biztueraren testigantza emotera.

Abestuz ekingo deusagu ospakizunari.

## **DOMINGO 2º DE PASCUA – A** **Octava de Pascua. Domingo de la Divina Misericordia**

### **MONICIÓN INICIAL**

Hermanas y hermanos:

Estamos en la octava de Pascua. Durante ocho días prolongamos el mismo gozo del domingo de Pascua. El papa san Juan Pablo II, quiso que este domingo fuera llamado “de la Divina Misericordia”. Nada es tan grande como el amor que el Padre nos tiene.

*Egia hau pozgarria da, dana hartzen dauana. Hori dala eta, ilusinoz, gorputz eta arima ibiltera garoaz, alkarte alaian bihotz eta sentiera bat bizitzera, Kristoren Biztueraren testigantza emotera.*

Iniciamos la celebración unidos en el canto.

**Lehenengo irakurgaiak** hasierako alkartearen bizitzaren barri emoten deusku labur-labur. Kristauek otoitzean eta ogi-zatiketan aurkitzen eben bat eginik irauteko ezinbesteko indarra.

Horrela, daukiena alkarbanatuz, aldi guztietarako balio dauan kristau alkarte eredua eskaintzen deuskue.

## **APOSTOLUEN EGINAK LIBURUTIK - Eg 2, 42-47**

Senideek zintzo irauten eben apostoluen irakaspenak entzuten eta alkarte bizitzan, ogia zatitzen eta otoitzean.

Jente guztia izaturik egoan apostoluek egiten ebezan hainbeste mirari eta ezaugarri gaz. Sinestundun guztiak batasunean bizi ziran eta dana danentzat euken: euren lur eta ondasunak saldu eta guztien artean banatzen eben dirua, bakoitzaren beharrianari egokionez.

Egunero batu ohi ziran alkarregaz tenpluan, eta etxeetan zatitzen eben ogia, jatorduak pozik eta bihotz apalez eginez. Iainkoa goستن eben, eta herri osoak begi onez ikusten zituan. Eta Jaunak egunetik egunera gehitzen eutsozan alkarteari salbatzen ziranak.

*Jaunak esana*

## **SAL 117, 2-4. 13-15. 22-24**

**R/. Eskerrak Jaunari, ona da-eta,  
Haren maitasuna betikoa da-eta.**

Israel etxeak hau esan begi:

«Haren maitasuna betikoa».

Aaron etxeak hau esan begi:

«Haren maitasuna betikoa».

Esan begie Jaunaren bildur direnek:

«Haren maitasuna betikoa». R/.

Gogor bultzatu ninduen jausteko,

han egoan Jauna ni laguntzeko.

Nire indar eta nire kemen Jauna,

Ha da nire salbamena.

Poz eta garaipen-oihuak

zintzoen txabolan. R/.

Etxegileek baztertutako harria,

berori egin da giltzarria.

Jaunak egin dau hori,

gure begien harrigarri.

Hau da Jaunak egin dauan eguna,

gu pozteko eta alaitzeko eguna. R/.

Es-ke-rrak Jau-na-ri, Haren maita-su-na be-ti-ko-a bai-ta.

Israel-etxeak hau esan begi:’  
 «Haren maitasuna betikoa».  
 Aaron-etxeak hau esan begi:’  
 «Haren maitasuna betikoa».  
 Esan beige Jaunarne bildur diranak:  
 «Haren maitasuna betikoa». *R/.*

Gogor bultzatu ninduen jausteko, ’  
 han egoan Jauna niri laguntzeko.  
 Nire indar eta nire kemen Jauna, ’  
 Bera da nire salbamena.  
 Poz eta garaipen-oihuak  
 zintzoen etxolan. *R/.*

G. LERCHUNDI

Es-kerrak e-mon Jau-n a-ri, be-  
 rre-rru-ki-a kan-ta be-ti-ko-a.

Israeldarrok, / esan Hari:  
 hain dau haundia / bere betiko / errukia.

Aarondarrok, esan Hari:  
 Hain da haundia / bere betiko / errukia.

Jainkozaleok, / esan Hari:  
 hain da haundia / bere betiko / errukia.

Gogor ninduen / ni bultzatu  
 erori nadin; / baina Jainkoak / deust lagundu.

Jauna dot indar / ta kemena,  
 Beragandik dot / behar orduan / salbamena.

Irrintzi alai, / esker oihu,  
 gizon zuzenen / etxetan orain / dantza, soinu.

La **primera lectura** nos describe, en síntesis, la vida de la comunidad primitiva. Los cristianos encontraban en la oración y en la fracción del pan la fuerza necesaria para mantenerse unidos.

*Horrela, daukiena alkar banatuz, aldi guztietarako balio dauan kristau alkarte eredu eskeintzen deus-  
kue.*

## LECTURA DEL LIBRO DE LOS HECHOS DE LOS APÓSTOLES – Hch 2, 42-47


Los hermanos perseveraban en la enseñanza de los apóstoles, en la comunión, en la fracción del pan y en las oraciones.

Todo el mundo estaba impresionado, y los apóstoles hacían muchos prodigios y signos. Los creyentes vivían todos unidos y tenían todo en común; vendían posesiones y bienes y los repartían entre todos, según la necesidad de cada uno.

Con perseverancia acudían a diario al templo con un mismo espíritu, partían el pan en las casas y tomaban el alimento con alegría y sencillez de corazón; alababan a Dios y eran bien vistos de todo el pueblo; y día tras día el Señor iba agregando a los que se iban salvando.

*Palabra de Dios.*

### SAL 117, 2-4. 13-15. 22-24 (R/: 1)



Dad gra-cias al Se- ñor por-que es bue- no,  
por-que es e- ter-na su mi- se- ri- cor-dia.

Diga la casa de Israel:  
eterna es su *misericordia*.

Diga la casa de Aarón:  
eterna es su *misericordia*.

Digan los fieles *del Señor*:  
eterna es su *misericordia*. R.

Empujaban y empujaban para *derribarme*,  
pero el Señor *me ayudó*;  
el Señor es mi fuerza y mi energía,  
él es *mi salvación*.

Escuchad: hay cantos de victoria  
en las tiendas de los *justos*. R.

La piedra que desecharon los arquitectos  
es ahora la *piedra angular*.  
Es el Señor quien lo ha hecho,  
ha sido un *milagro patente*.  
Éste es el día en que *actuó el Señor*:  
sea nuestra alegría y nuestro *gozo*. R.

**Bigarren irakurria**, Pedro apostoluak adone emon gura deutse Asia Txikiko kristauei jasaten ari diran jazarpena dala-eta. Berbiztua itxaropen sendoaren bermea dala gogoratzen deutse.

Horren fruitua, aldi gogorak datozanerako dogun poza eta konfiantza dira.

### **SAN PEDRO APOSTOLUAREN LEHENENGO GUTUNETIK - I Pe I, 3-9**

Bedeinkatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jainaren Aita! Bere erruki handiaz itxaropen bizira sortu gaitu barrero, Jesu Kristo hilen artetik biztuz. Holan, hondatu, zikindu edo zimeldu ez daiteken ondarea itxaron dogu, zuentzat zeruetan gordeta dagoana. Jainkoaren indarrak zaintzen zaitue sinesmenari esker, azken aldian agertuko dan salbamera jadesi dagizuen.

Horregaitik, pozik zagoze, nahiz eta oraindino alditxo batez probaldi batzuk sufritu behar izango dozuezan. Holan zuen sinesmenak bere jatortasuna erakutsiko dau, galkorra izan arren sutan garbitzen dan urreak lez; eta urrea baino askoz baliotsuagoa dan zuen sinesmenak gorespenera, aintza eta ohorea lortuko ditu, Jesu Kristo agertuko danean.

Maite dozue Jesu Kristo, ikusi ez badozue ere. Eta ikusi barik Beragan sinesten dozuela, esan ezin ahalako pozez, poz disdiratsuz, alaitzen zaree eta zeuen sinesmenaren helburua, zeuen salbamera, lortzen dozue.

*Jaunak esana*

En la **segunda lectura**, el apóstol Pedro, quiere animar a los cristianos de Asia Menor ante la persecución que están viviendo. Les recuerda que el Resucitado es la garantía de la firme esperanza.

*Horren fruitua, aldi gogorak datozenerako dogun poza eta konfidantza dira.*

### **LECTURA DE LA PRIMERA CARTA DEL APÓSTOL SAN PEDRO - I Pe I, 3-9**

Bendito sea Dios, Padre de nuestro Señor, Jesucristo, que, por su gran misericordia, mediante la resurrección de Jesucristo de entre los muertos, nos ha regenerado para una esperanza viva; para una herencia incorruptible, intachable e inmarcesible, reservada en el cielo a vosotros, que, mediante la fe, estáis protegidos con la fuerza de Dios; para una salvación dispuesta a revelarse en el momento final.

Por ello os alegráis, aunque ahora sea preciso padecer un poco en pruebas diversas; así la autenticidad de vuestra fe, más preciosa que el oro, que, aunque es perecedero, se aquilata a fuego, merecerá premio, gloria y honor en la revelación de Jesucristo; sin haberlo visto lo amáis y, sin contemplarlo todavía, creéis en él y así os alegráis con un gozo inefable y radiante, alcanzando así la meta de vuestra fe: la salvación de vuestras almas.

*Palabra de Dios.*



Ikusi dozulako sinisten dozu?—diño Jaunak—;  
zorionekoak, ikusi barik sinisten dabenak. R̄.

## ✠ JESU KRISTOREN EBANJELIOA SAN JOANEN LIBURUTIK - Jn 20, 19-31

Astearen lehenengo egunean, ilunabarrean, etxe batean batuta egozan ikasleak, ateak itxita, juduen bildurrez. Sartu zan Jesus eta, erdian jarririk, esan eutsen:

- Bakea zuei.

Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi eutsezan. Ikasleak pozez bete ziran, Jauna ikustean.

Jesusek barriro esan eutsen:

- Bakea zuei. Aitak Ni bialdu nauan lez, Nik zuek bialtzen zaituet.

Eta hareen gainera arnasea botaz, esan eutsen:

- Hartu egizue Espiritu Santua. Zuek pekatuak parkatzen deutsezuezan, parkatu egingo deutsez Jainkoak ere; zuek parkamena ukatzen deutsezuenei, ukatu egingo deutse.

Tomas, Hamabietako bat, Bikia eritzona, ez egoan hareekin Jesus etorri zanean. Beste ikasleek esan eutsoen:

- Jauna ikusi dogu.

Tomasek erantzun eutsen:

- Haren eskuetan untze-zuloak ikusten ez baditut, neure atzamarra haren untze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez baditut, ez dot sinestuko.

Handik zortzi egunera, etxean egozan barriro ikasleak, eta Tomas ere hareekin zan. Sartu zan Jesus, ateak itxita egozala, eta erdian jarririk esan eutsen:

- Bakea zuei.

Gero esan eutsan Tomasi:

- Ekarri atzamarra, begiratu nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinestegor, sinestedun baino.

Tomasek erantzun eutsan:

- Ene Jauna eta ene Jainkoa!

Jesusek esan eutsan:

- Ikusi nozulako sinestu al dozu? Zorionekoak ikusi barik sinesten dabenak.

Beste ezaugarri asko ere egin zituan Jesusek ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez dagozanak; hemen idatziak Jesus Mesias, Jainkoaren Semea, dala sinestu dagizuen idatzi dira eta, sinestuz, haren izenean bizia izan dagizuen.

*Jaunak esana*



Porque me has visto, Tomás, has creído, —dice el Señor—;  
bienaventurados los que crean sin haber visto. **R/.**

## ✠ LECTURA DEL SANTO EVANGELIO SEGÚN SAN JUAN 20,19-31

Al anoecer de aquel día, el primero de la semana, estaban los discípulos en una casa, con las puertas cerradas por miedo a los judíos. Y en esto entró Jesús, se puso en medio y les dijo:

- Paz a vosotros.

Y, diciendo esto, les enseñó las manos y el costado. Y los discípulos se llenaron de alegría al ver al Señor. Jesús repitió:

- Paz a vosotros. Como el Padre me ha enviado, así también os envío yo.

Y, dicho esto, sopló sobre ellos y les dijo:

- Recibid el Espíritu Santo; a quienes les perdonéis los pecados, les quedan perdonados; a quienes se los retengáis, les quedan retenidos.

Tomás, uno de los Doce, llamado el Mellizo, no estaba con ellos cuando vino Jesús. Y los otros discípulos le decían:

- Hemos visto al Señor.

Pero él les contestó:

- Si no veo en sus manos la señal de los clavos, si no meto el dedo en el agujero de los clavos y no meto la mano en su costado, no lo creo.

A los ocho días, estaban otra vez dentro los discípulos y Tomás con ellos. Llegó Jesús, estando cerradas las puertas, se puso en medio y dijo:

- Paz a vosotros.

Luego dijo a Tomás:

- Trae tu dedo, aquí tienes mis manos; trae tu mano y métela en mi costado; y no seas incrédulo, sino creyente.

Contestó Tomás:

- ¡Señor mío y Dios mío!

Jesús le dijo:

- ¿Porque me has visto has creído? Bienaventurados los que crean sin haber visto.

Muchos otros signos, que no están escritos en este libro, hizo Jesús a la vista de los discípulos. Estos han sido escritos para que creáis que Jesús es el Mesías, el Hijo de Dios, y para que, creyendo, tengáis vida en su nombre.

*Palabra del Señor*